

FUTBOLA

ARRAUNKETA

Estreinua Mannheimen aurka


Stepanovic Athleticeko entrenatzaileak hogeita hiru gizon eraman ditu Alemaniara

Denboraldi-aurreko lehenengo partiduari ekingo dio gaur Athleticek Alemanian. Dragoslav Stepanovicen mutilek azken denboraldian lehen mailara igotzeko zorian izan zen Manheim izango dute aurkari. Entrenatzaile serbiarrak ezinbestekotzat jo dituen bi joko antolatzaileak bilatzeari ekingo dio.

RAMON BASALDUA / BILBO

Aste guztiko entrenamenduetan jo eta ke aritu ondoren, Athleticek denboraldi-aurreko lehenengo partidua jokatu du gaur Mannheim hiriko Carl Benz Stadion futbol zelaiaren bertako taldearen aurka. Dragoslav Stepanovicen hogeita hiru gizon eraman ditu Alemaniara, plantilako guztiak, lesionaturik dauden Andoni Lakabeg, Jon Ander Lambea eta Sergio Corino ezin.

Athleticeko entrenatzaile serbiarrak esan duenez, iaz titularrak izan ziren gizonak ariko dira hamaikakoan, hasiera batean behintzat. Nolanahi ere, Dragoslav Stepanovicen argi eta garbi utzi du jokalaririk guztiak ikusi nahi dituela eta bakoitzak bere aukera izango duela. Nolanahi ere, ikusi egin beharko da zein jokalaririk zelairatzen dituen gaurko norgehiagokan. Stepanovicen adierazitakoaren arabera, bi joko antolatzaile bilatu nahi ditu erdialderako, bata aurrerago eta bestea atzerago jokatuko.



Joseba Etxeberria gaztearen kalitatea goraiatu du Stepanovicen egunotan.

M. RAMIREZ

AURKARI GOGORRA HASTEKO Mannheim taldea ez da aurkari erraza izango gaur Athleticek. Zuri-gorriak duela sei egun hasi ziren entrenatzen. Talde alemaniarrak jokalaririk, ordea, sasoiaren daude egun gutxi barru liga txapelketari ekingo baitiote. Horrez gain, talde alemaniarra lehen mailara igotzeko zorian izan zen iazko denboraldian, baina porrot egin zuen azken partiduetan. Ikusi egin beharko da nola erantzuten duten zuri-gorriek.

Dragoslav Stepanovic pozik geratu zen berak zuzentzen duen taldeak ostegun iluntzean Faturan Getxoren aurka jokatu eta irabazi zuen partiduekin. Zuri-gorrien entrenatzaile serbiarrak goraiatu egin zuen Joseba Etxeberriaren egin zuen jokoa. «Oraindik gauza batzuk hobetu behar baditu ere, itsu joka dezakeen gizona da» esan zuen Stepanovicen. Era berean, gustora geratu zen Oscar Valesen erdialdean egin zuen jokorekin. Gauzak honela, ezusteak izan

daitezke datozen egunotan Athleticek Alemanian jokatu dituen partiduetan Stepanovicen zelairatuko dituen hamaikakotant.

Gaur Mannheimen kontra jokatu ondoren, norgehiagoka zail bati egingo dio aurre Athleticek datorren asteartean. Stepanovicen taldeak Friburg, iazko denboraldian Bundesligan hirugarren postuan geratu zen taldea izango du aurkari. Lau egun geroago, Stuttgart talde indartsuaren aurka jokatu dute.

Iriarte: «Ilusioz ikusi ditut jokalaririk»

GORKA ZABALETZA / DONOSTIA

Realak bete ditu jadanik bere denboraldi-aurreko lehen egunak, eta Salva Iriarte entrenatzaileak orain arte egindako lanaren balorazioa egin zuen atzo, entrenamendu ostean emandako prentsaurrekoan. «Prestakuntza oso ondo doa, jokalaririk ilusio eta gogo handiz ari baitira lanean. Lehen egunetik ikusi ditut aurten taldean postu bat lortzeko zer-nolako lehia izango den». Iriarte pozik dago, jokalaririk jarri onaz gain, lesio eta arazo larririk ez baitute izan. «Orain arte ez dugu arazo larririk izan eta lehen egun hauetan horixe da garrantzitsua. Ea aste hau horrela amaitzen dugun».

Jokalaririk berriekin ere gustora dago Realeko entrenatzaileak. Nahiz eta beroa beste jokalaririk baino gehiago nabaritu, gogoz

aritu dira. «Egunez egun taldean sartzen ari direla ikusten dut. Egia da hizkuntzaren traba dutela, baina beren kideekin txantxetan ere aritu dira, eta hori adierazgarria da». Jokalaririk guztiak argi dute aurten lehen hamaikakoan sartzeko lan handia egin beharko dutela, eta lehia handia izango dela. Dena den, Andoni Imazek azaldu bezala, «badakigu lehia hori ona izango dela taldearentzat».

Orain arte prestaketa fisikoan izan bada entrenamenduen ardatza, hemendik aurrera balaioa gehiago erabiltzen hasiko dira, eta hori eskertu egiten dute jokalariek. Gainera, astelehenean Hollandara abiatuko dira, bertan denboraldi-aurreko lehen partidua jokatuz. Salva Iriartek ez omen du oraindik erabaki erabango dituen 20-21 jokalaririk zerrenda, baina bidaia honen

helburua argi du beasaizarrak. «Partidu hauekin denboraldian zehar jokatu duen taldea itxuratzen hasiko naiz. Dena den, nik beti esan dut beraiek esan behar didatela niri zein erabaki hartu behar duen, beren lan eta jarraitzearekin». Horretaz gain, hiru atzeritarrekin hainbat konbinazio egingo ditu Salbak, egokiena bilatzeko asmoz.

JULEN MASACHEN AURKEZPENA

Bestalde, atzoko prentsaurreko beste protagonista bat Julen Masach izan zen. Hemendik aurrera Realeko prestakuntza fisikoaren taldean arituko den gipuzkoar honi buruz ere aritu zen Iriarte. «Julen Masachen kontratazioa eman beharreko pausoa zen. Bere lana lehen taldeko jokalaririk erreperazioaz arduratzea izango da. Halaber, edozein arazo fisiko

badute, berak laguntza berezia emango die besteen mailan jartzeko. Nik hutsune bat ikusten nuen alde honetatik eta horregatik erabaki dugu Julen Masachen ekartzea».

Orion 26 traineru ariko dira gaur erlojupeko proban

R. B. / BILBO

Hogeita sei unti izango dira lehen gaur arratsaldean Orioko ibaiko uretan jokatuko den III. Euskadiko Kutxa Ikurrina-Orioko Udala Sari nagusiaren erlojupeko aurreko jardunaldian. Orio, Orio B, Ur Kirolak, Trintxerpe, Fortuna, Pasai Donibane-Koxtape, Pedreña, Getaria, Hondarribia, Hondarribia B, Astillero, Tirango San Juan, Hibaika, Santiagotarrak, Castro, Luanco, Camargo, Perillo, Zumaia, Meira-ko Samertolameu, Pontejos, Hernani, Santoña, Lutxana, Elantxobe eta Donibaneko Arraunlariak ariko dira nor baino nor estropadan. Traineru bakoitzak 5.500 metro bete beharko ditu Orioko errekan. Sei onenek lortuko dute hurrengo eguneko finalerako txartela. Orduan, bi txanda jokatuko dira eta untiak 5.800 metro eta bost zia-boga bete beharko dituzte. Garaileak 600.000 pezeta eta ikurrina jasoko du.

Partehartzaileak konfiantza izanik, Orioko 'Kantxa' untiak da garaipena eskuratzeko faborito nagusia. Jose Luis Kortak denboraldi hasieran iragarri zuenez, gaur eta bihar jokatuko den estropadan ikusiko da zer egiteko gauza den Orioko untiak aurtengo denboraldian. Gainera, aulki mugikorrean aritutako mutilak ohitu dira trainerura. Beraz, ikusi egin beharko da zein arraunlari erabiltzen duen Kortak eta zer-nolako maila erakusten duen Orioko koadrilak. Dena den, Hondarribia aurkari zaila izango da.

Egunkaria

Pertsona bat behar du UROLA-KOSTA komertzial lanak egiteko.

Ezinbestekoa: -Eskualdea ezagutzea.
-Autoa izatea

Interesatuok deitu Andoingo 300222 telefonora, abuztuaren 12a arte